


# HIZKUNTZA



## ESKELAK NOLA IDATZ

Oraintsu arte euskara plazara eta informabideetara gehiegirik atera ez delarik, hainbat eta hainbat arlotan, uniformitate falta handia ikusia dugu, jendaurrerako euskaraz egiten den zenbait lanetan. Horregatik, hontaz sail berri bat hastea pentsatu izan dut, artikulu laburrak eginez, eta artikulu bakoitzean gauza praktikoa bat agertzeko eta azaltzeko. Lehen artikulu hontan eskelak nola idatzi behar diren azalduko dizuet.

Erdal egunkarietan —noizean behin— euskaraz idatziriko eskelak aurki daitezke. Hauetan astakeria handiak irakurri ohi ditugu sarri. Eta hori diot, ez soilik Euskaltzaindiaren arauak betetzen ez direlako, baizik eta batzutan euskara aldetik oso gaizki idatzirik irakurtzen ditugulako.

Dakidanez, erdal egunkarietan eskelak egiteko eredu batzu daude; horrela, eskelak beti agertzen dira berdin edo oso antzeratsu. Guk ere horrelako eredu batzu behar genituzke euskaraz. Zer esanik ez, Euskaltzaindiaren arauak gordez eginak izan behar lukete. Eta, beharbada, erdal egunkarietako Euskaltzaindiari eskatu beharko lizkiokete eredu horik. Bitartean, nik eredu bat proposatuko dut. Honen gainean oharrak egin ditzakezue; eta, beharbada, azkenean, Euskaltzaindiari proposa geniezaiokete, eredu hori ofizialki onhar lezan.

Bukatzeko, ohar bat. Zalantzan ibilia naiz, asmatu-riko eskela bat edo eta benetako bat jartzeaz. Azkenean, badaezpada ere, benetako bat jartzea hobe litzatekeela pentsatu dut. Honela, neure aitagarrebari egin niona agertuko dizuet. Besterik gabe, hona hemen eskela hori.

### + Jorge Akaiturri Abortiz jauna

Atzo hil zen, 71 urte zituela, Eliza Amaren Sakramentuak eta Aita Sainduaren Bedeinkapena haririk  
**GOIAN BEGO**

Haren emaztea, Alodia Urrutia; seme-alabak, Jorge Maria eta Lore; suhia, Jose Ramon Etxebarria; erraina, Ana Maria Corcuera; ilobak, Alaitz, Gorka, Maider eta Iratxe; anaia-arrebak, Nicolas, Pascuala, Fermin (kanpoan) eta Genaro; koinatu-koinatak, Casimira, Juan, Elvira, Hipolita, Eugenio, Miren eta Joaquin; bestelako loba eta ahaideak.

Hauak guztiok otoitz bat eskatzen dizute haren animaren alde; eta modu berean, gaur, astearte, eguerdiko ordu bat eta erdian Santutxuko "Begoñazpi" elizan eginen diren elizkizunetara etor zaitezte.

Ondoren Ereñora eramanez da gorpua, bertako hilerrian lurperatzeko.

Bilbon, 1975.eko abenduaren 30ean.

HELBIDEA: Zabalbide 70, 3. B. Bilbo - 6

Beste hitz batzu ere erabili behar izaten dira. Adibidez, hauek: bilobak, herenlobak, senarra, gurasoak, nebak, ahizpak, lehengusuak, eta abar. Eta bestelako datu batzu, kasu bakoitzerako egokitu beharko dira, noski.

J. R. Etxebarria